



Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián



Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián

Centro Kursaal Elkargunea
Zurriola 1
20002 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 00 31 70
quincenamusical@donostia.eus
www.quincenamusical.eus

Datozen kontzertuak / Próximos conciertos:

27/8

20:00
Orchestra Filarmonica della
Scala de Milán

30/8

20:00
Orchestre Philharmonique de
Radio France

Sarrerak / Entradas

Taquillas / Leihatilak:
Kursaal
Teatro Victoria Eugenia
Antzokia
www.quincenamusical.eus

Informazio gehiago:
Más información:



85 musika quincena
hamabostaldia musical

donostia
san Sebastián
abuztua 1–30
agosto 2024



25/8

“Folia”
Compagnie Käfig





Bidaiak eta exotismoa

Hip hoparen folia bat

«Rapa, breakdancea, graffitiaren artea eta deejayinga –grabazio bati, hots desberdinak lortzeko, egiten zaion manipulazio erritmikoa– biltzen dituen adierazpen artistikoa da hip hopa. Gaur egun ezagutzen ditugun formak New Yorkeko Bronx hegoaldean sortu ziren, 70eko hamarraldiaren erdialdean», adierazten zen Maiatza Dantzaren hamabosgarren edizioko prentsa dosierrean. 1998. urtea zen, eta jadanik desagertua den dantza garaikideko gipuzkoar jaialdi hartan sendo ziharduten Europan sortzen ari ziren estilo berrien alde; hala, Compagnie Käfig hasiberria gonbidatu zuten, Egiako Gazteszena gune sortu berrira. Mourad Merzoukik, konpainiaren zuzendari eta koreografo gazteak, bere asmoen berri eman zigun orduko hartan: «Hip hopa kalean sortu zen, baina, orain, beste gune batzuk konkistatu nahi ditut. Entzule multzo zabalagora iritsi nahi dut. Eta, hasteko, hip hopak antzokietara iritsi behar du».

la hiru hamarraldi geroago, dantzaren irudi sagaratua bihurtu da sortzaile hura Frantzian, hip hopari dantza eszeniko gisa egin dion ekarpenagatik. Lyonen jaioa eta aljeriar sustraiekin, Merzoukik kultura-aniztasuna erreibindikatzan du Musika Hamabostaldian aurkezten duen lanaren bitartez. Lan horretan, ez du zalantzarik

egiten italiar tarantela tradizionala hartu, partitura barroko bat sampleatu –zuzenean sortuak ez diren beste abesti batzuetatik hotsak ateratzea– eta musika elektronikoa eransteko. Aurrez aurreko bi munduren arteko topaketa guztiz berezia: hip hoparen folia bat, errepertorio barroko berrikusi batetik abiatuta.

Mestizajea koreografiaren mailara iristen da, bateratzen dituenean hip hopa dantza garaikidearekin, eta baita puntako zapatilen gaineko dantzarekin ere. Hala ere, sopranoaren eta Le Concert de l’Hostel Dieu musikari-taldearen baimenarekin, ikusleen erretinan geldituko den irudia elur azpian biraka ari den derviche batena izango da, Compagnie Käfig konpainiako B-Boys eta B-Girls taldeekin elkarriketan.

2014ko Dantzaren Nazioarteko Eguna-ren mezuan, Mourad Merzoukik honela definitu zuen bere burua: «herritar bitxi bat, topaketa guzti-guztietan kode sozialak berrasmatzen dituen, hip hop kultura-ren balioei leial, energia negatiboa indar positibo eraldatzen duena». 1998an Käfig sortu zuenean –kaiola, alemanez eta arabieraz–, hip hoparentzat aukera berriak sortzea zuen gogoan, eta gaur gauean ikusi ahaliko dira, Kursaal Auditorioko eszenatokian, asmo haren ondorioak.

Iratxe de Arantzibia



“Folia”

25/8

Igandea / Domingo

20:00

Duración: 1h.

“Folia” Compagnie Käfig

Mourad Merzouki zuzendaritza artistikoa eta koreografia
Marjorie Hannoteaux zuzendari artistikoaren laguntzailea
Franck-Emmanuel Comte (**Le Concert de l’Hostel Dieu**),
Grégoire Durrande ideia musikala
Benjamin Lebreton, Caroline Oriot, Mathieu Laville, Elvis Dagier, Rémi Mangevaux, Guillaume Ponroy eszenografia
Yoann Tivoli argiak
Pascale Robin musikarien jantziak (**Pauline Yaoua Zurini**-ren laguntzarekin)
Nadine Chabannier dantzarien jantziak

Pôle en Scènes, Encore un Tour, Les Nuits de Fourvière, Centre chorégraphique national de Créteil et du Val-de-Marne / Cie Käfig, Lling Music koprodukzioa

La Caisse des Dépôts-en laguntzarekin

Habid Bardou, Nedeleg Bardouil, Lisa Ingrand, Franck Caporale, Mathilde Devoghel, Sofian Kaddaoui, Joël Luzolo, Mathilde Rispal, Yui Sugano, Chika Nakayama, Aurélien Vaudey, Théo Farjounel dantzariak

Franck-Emmanuel Comte, Reynier Guerrero, Nicolas Janot, Aude Walker-Viry, Ulrik Larsen, Florian Verhaegen musikariak

Heather Newhouse sopranoa



Viajes y exotismo

Una folía de hip hop

«El hip hop es una expresión artística que incluye el rap, el breakdance, el arte del graffiti y el deejaying –la rítmica manipulación de una grabación para obtener de ella sonidos diferentes–. Las formas que conocemos hoy día surgieron en el sur del Bronx de Nueva York a mediados de los años 70», explicaba el dossier de prensa de la decimoquinta edición de Maiatza Dantzan. Corría el año 1998 y el desaparecido festival guipuzcoano de danza contemporánea apostaba por los nuevos estilos emergentes en Europa, invitando a la neófita Compagnie Käfig al recién estrenado espacio de Gazteszena en Egia. En aquel momento, el joven director y coreógrafo de la misma, Mourad Merzouki, ya avisaba de sus intenciones: «El hip hop se creó en la calle, pero ahora quiero conquistar otros espacios. Quiero llegar a una audiencia más amplia. Para empezar, el hip hop necesita llegar a los teatros».

Casi tres décadas después, el creador se ha convertido en una figura consagrada de la danza en Francia por su contribución al hip hop como danza escénica. Nacido en Lyon y con raíces argelinas, Merzouki reivindica el multiculturalismo en la obra que presenta en el marco de Quincena Musical, en la que no titubea al tomar una tarantela

tradicional italiana, samplear –extraer sonidos de otras canciones que no provienen de un ejecutante en vivo– una partitura barroca y añadirle música electrónica. Un encuentro singular entre mundos opuestos: una folía de hip hop, partiendo desde un repertorio barroco revisitado.

El mestizaje alcanza al plano coreográfico al fusionar hip hop con danza contemporánea e incluso baile sobre zapatillas de punta. Sin embargo y con permiso de la soprano y del ensemble de músicos de Le Concert de l’Hostel Dieu, la imagen que quedará en la retina del espectador es la de un derviche girando bajo la nieve y en diálogo escénico con el conjunto de B-Boys y B-Girls de la Compagnie Käfig.

En el mensaje del Día Internacional de la Danza de 2014, Mourad Merzouki se definió como «un ciudadano peculiar que reinventa los códigos sociales en cada uno de sus encuentros, permaneciendo fiel a los valores de la cultura del hip hop, que transforma la energía negativa en una fuerza positiva». Cuando fundó Käfig –jaula, en alemán y árabe– en 1998, se propuso abrir nuevos horizontes para el hip hop y los resultados se podrán ver esta noche sobre el escenario del Auditorio Kursaal.

Iratxe de Arantzibia